

azpeitian zer?

129. zenbakia

udal aldizkaria

2010eko ekaina

LIBURUTEGIA

SANJUANDEGIKO URBANIZAZIO LANAK
UDAL ERAIKUNTZETAN OBRAK

SOREASU OBRA ETA ZERBITZUETARAKO

IBILGAILUAK LIBURUTEGIA

MUSIKA ESKOLA

BIDEGORRIAK OKTOGONOKO
IGOGAILUA

UDAL ERAIKUNTZETAN OBRAK

BASERRI BILTEGIAK

AZILLERRI ETA SOREASUKO
URBANIZAZIOAK

SANJUANDEGIKO
URBANIZAZIO LANAK

LIBURUTEGIA

LIBURUTEGIA

UDAL ERAIKUNTZETAN OBRAK

OKTOGONOKO

IGOGAILUA

SOREASU

MUSIKA ESKOLA

inbertsioak non-nahi

Udalak aurrekontuak onartu ditu

eta 9.338.110,87 euro

bideratuko dira hobekuntzak egiteko

700 urte
azpeitia



zer?




- 2 Inkesta
- 7 San Agustin
- 3 Herritarren eskaerei erantzunez
- 8 Erreportajea
- 5 Jabetze Eskola
- 12 Motxean
- 6 Etxez-etxeko medikazioa
- 14 Euskara

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
 Egilea: Prentsa bulegoa
 Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
 Ale kopurua: 7.000
 L.G. SS - 1148/91

Paper birziklatuan egina



telefono interesgarriak

Azpeitiko Udala

Zentralita	943 15 72 00	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	Bailarako Nekazari bulegoa	943 81 24 85
Alkatetza	943 15 71 85	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	Enplegu Bulegoa	943 15 03 00
Idazkaritza	943 15 71 98	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	1. Epaitegia	943 02 51 91
Kontuhartzailetza	943 15 71 89	Ingurugiro Etxea		2. Epaitegia	943 02 51 92
Hirigintza	943 15 71 91	Fundazioa	943 15 17 13	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	DYA	943 46 46 22
Kultura	943 15 70 68	Kontsumitzaileen		Gurutze Gorria	943 85 32 97
Komunikazioa	943 15 79 82	Informaziorako Bulegoa	943 15 71 93	S.O.S. Deiak	112
Kirolak	943 15 00 95	N.A.N. Bulegoa	943 15 71 60	Taxiak	943 81 13 07
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 51 71	Urkome	943 81 65 00
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89		
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko	943 15 71 61	Museoa	943 81 24 48		
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60			Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Eguneko Zentroa	943 15 74 96			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Liburutegia	943 15 71 95	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astear te eta ostegunetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Suhiltzaileak	112	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Igerilekua	943 81 41 21	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Polikiroldegia	943 81 30 69	Anbulategia	943 02 54 00	merkatuatzte bulegoa	943 15 10 29
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Larrialdiak	943 02 54 01	Astear teetan 10:00etatik 13:30era eta	
Euskara Patronatua	943 81 45 18	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

inkesta

zer dio kaleak?

Zer deritzozu estalitako haur parke berriaz?



Onintza Zeberio



Edurne Salegi



Olatz Aguado



Rosario Ibaieta

"Udaletxe atzeko plazan egin duten parke berria oso ondo dagoela umeentzat iruditzen zait, haur txikientzat batez ere. Bai eguraldi ona egiten duenean edota txarra denean, oso ondo etortzen da honelako leku bat izatea. Duen gauza txarrena, seguruenik, zera da, haizea egiten duenean haizelasterra sartzen dela. Halere, horrelako guneak zenbat eta gehiago egin orduan eta hobea go herriarentzat".

"Alabari asko gustatzen zaiola, batik bat, autobusa, eta bertara etortzeko eskatu dit eta gaur bezala, euria egiten duen egunetarako aterpe ederra da. Espazioa ere ondo dago, entretenitzeko gauza nahikoa aurkitu daiteke eta leku ona dela pentsatzen dut. Leku hotza denaren ahotsak entzun ditut, baina eguraldi txarra egiten duenerako aterpea da. Ez zait iruditzen ezer gehiago falta denik bertan jaritzeko".

"Behar bat zela eta orain oasi txiki bat dela deritzot, batez ere, ume txikiak dituzten gurasoentzat. Ikusita zer motatako altzariak dauden txikientzat zuzenduta dago baina zaharragoak dituztenentzat ere oso ondo dago. Aspaldi behar zen babeslekua da eta bertan ibiltzen den jende mugimenduak berretsi egiten du. Bestalde, nik neuk ez dut ezer faltan botatzen edo zerbait gehiago jartzetik behar denik behintzat".

"Herriko haur eta umeentzat honelako parke bat behar zen, Azpeitian aspaldidanik falta zen gauza bat da, jarri dutena baino lehenago agian, baina hala ere, oso ondo dagoela pentsatzen dut. Benetan. Egia da beti dagoela gauza guztiak hobetzeko aukera, eta jende askok esaten du leku hotza dela, neguan batik bat, baina dagoen lekua dago eta ezin da gauza asko egin horrekin. Niretzat oso ondo dagoen parkea da".

Herritarren eskaerei erantzunez...

Udalak jarritako buzoieta eta azpeitia.net webgunean jasotako iradokizun, proposamen, eta kexei apurka-apurka erantzuten ari da Azpeitiko Udala. Hona hemen horren adibide batzuk.

Iradokizuna

Faborez, Azpeitian pagoz betetako baso (Goenako kanpa) bakarra dago familiarekin joateko aukera duguna eta ez dago urik, ez parrillarik, ez zabor ontzirik... Paraje ederra da benetan eta gutxi zainduta dago. Horregatik parrilla, ura eta zabor ontziak jartzeko eskaera egiten dut.

Familia asko

Erantzuna

Horretan ari gara. Udal honen nahia gune hori txukun-txukun egotea da eta horretarako eremua ixtea da lehen egitekoa motorrekin arazoa dagoelako. Mahaiak ere konpontzen hasiak gara, ura badago, parrillak udarako ipintzea nahi da eta komuna falta, izan ere, jarritako bakoitzean puskatu egiten dute.

Inaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradokizuna

Arana Goikoan dagoen haur parkean hesi batzuk jartzea nahi dut, baloiak eta umeak ez daitezen bertatik irten.

Erantzuna

Nahiz eta baloiarekin ibiltzeko leku bat ez izan, aztertuko dugu.

Inaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradozkizuna

Urrestillara bidegorria egiteko asmorik ba ote dagoen galdetzen dut, oinezkoak eta bizikletak batera ibiltzeko modukoa. Urrestillan gero eta jende gehiago bizi da eta ez dago biderik, errepide ertzean joateko arriskuarekin. Gainera, pantanoraino luzatu daiteke denborarekin. Eskerrik asko.

Erantzuna

Urrestillarako ibilbidea urte amaierarako zehaztuta egon daiteke, baina Urrestilla-Landeta artean egingo diren saneamenduko obren ibilbidea aprobetxatu daiteke bidegorriaren zati batzuetan behintzat.

Julian Eizmendi. Alkatea.

Iradokizuna

Mendian ibili ohi naiz, eta seinalizatutako zenbait bidetan hala moduzko itxiturekin aurkitzen gara mendizaleok. Uste dut ez dela legezkoa itxiturek bidea oztopatzea, itxiturek lur sailetan beharko lukete eta ez bidea oztopatu. Gai honekin lotuta, zenbait herrialdetan itxiturek tradiziozko elementu bezala hartzen dira eta egurrezkoak eta tankera berdintsukoak egiten dira eta ez hemen bezala, somierrak aprobetxatu, burdin zaharrak... Hori aurrera eramateko, bai ingurumen, bai turismo edo baserritarrekin zer ikusia duten instituzioek bultzatu beharko lituzke honelako lanak eta laguntzak eman. Menorca aldean, adibidez, hau asko zaintzen dute.

Erantzuna

Herri-bidetan ezin dira langak jarri, Xoxoten bakarrik, baina arazoak daudelako eta kontrolatu beharra dagoelako. Mahai gainean dugun gai bat da hau eta kontzientziarioa egin beharrenekin ados gaude, ea poliki-poliki lortzen dugun.

Inaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradokizuna

Gure herriko ibai ertzak lotsagarriak daude, eta oraindik eta lotsa handiagoa kontutan hartzen badugu ura garbitzeko depuradorak jarri ondoren zenbat zabor iristen den hondartzetara. Udalak noiz behinka ibaietako zabor bilketa lanak egitea antolatu beharko lukeela uste du (plastikoak, erroberak, hesiak...)

Erantzuna

Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitz egin dugu dagoeneko eta emandako laguntzei esker programa bat antolatu da aurtien burutzeko. Ikerketa eginda dago noiz eta non garbitu jakiteko, ibaiak baxu daudenean egin behar da eta uda honetan jarri nahi dugu martxan.

Inaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradokizuna

Hilabete bat baino gehiago da herritik Izarraitz alderako bidea itxirik duela Sahastizabal baserriaren inguruan pertsona batek. Zanga bat zabaldu eta kito, gorago bizi diren baserritarrak konpon daitezela nahi duten bezala. Baimenik ba al du? Nork emana? Udalak akaso? Nahi duena egin al lezake edonork?

Imanol Elias

Erantzuna

Atea jarri zen eta beraz, arazoa konponduta dago.

Inaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradokizuna

Erdi kalean bizi naiz. Nire ogibideagatik goizetik gauera kale honetan eguna ematen dut. Ia ia egunero eguerdi aldean, arratsaldean, gauean eta... edozein momentutan Intz tabernako zerbitzariak eta bezero batzuk kale erdian futboleak ibiltzen dira. Behin baino gehiagotan munizipalei deitu diet, deitu bezain pronto etortzen dira beraiei arreta hartzera. Munizipalak alde egitean berriro hasten dira. Behin baino gehiagotan, munizipalak bi, hiru aldiz egun batean etorri behar izan dira baina alferrik, beraiek ez diete kasurik egiten. Nik galdetzen diot neure buruari ea zer gertatuko den umeren bati, helduren bati, agureren bati edo edozein bizilaguni kolperen bat ematen badiote edo kale honetako negozioren baten edo bebarruren baten kristalak puskatzen badituzte. Ezin al da ezer egin hau debekatzeko? Nekatuta nago egunero arazo hau jasateaz. Ordenantza munizipalek ez al dute arautzen arazo hau Azpeitiko erdigunean?

Erantzuna

Galarazita dago baloiarekin jolasean ibiltzea; Udaltzaingoarekin saiaturako gara gainean egoten. Behar izanez gero, zigorrak jarriko dira.

Inaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Emakumeentzako Jabetze Eskolan 62 pertsona ibili dira

Udaleko Parekidetasun sailetik ikasturtearen balorazio positiboa egin da



Emakumeen prestakuntza eta hausnarketarako topagunea bihurtzeko asmoa zuen Jabetze Eskolak jarri zen abian urte hasieran eta ikasturtea amaitu denean, arduradunak gustura ageritu dira jasotako emaitzekin eta balorazio "positiboa" egiten dutela adierazi dute.

Guztira, bost izan dira egindako tailerrak emakumeentzat zuzendutako Jabetze Eskolen baitan eta dena 62 pertsonek hartu dute parte beraietan; Antzerki tailerrean 12 herritar ibili dira, Autodefentsa feministan 15, Jendaurrean hitz egiteko teknikak ikastaroan 12 lagun, Sexualitatea tailerrean 10 eta azkenik, Emozioak lantzen ikastaroan 25 pertsona. Azken urteetako ohiturarekin jarraituz, ikasturtea jaialdi batekin eta afariarekin amaitu zuten, horrela, emakumeen gitarra ikastaroko taldeak kontzertua eskaini zuten eta jarraian, antzerki tailerrekoek *Loturak* izeneko antzezlanaren aurkeztu

zuten. Betharram aretoa bete egin zen eta ondoren, Kiruri jatetxean egindako afarian 90 emakume bildu ziren.

"Hurrengo urtean indartzea espero dugu eta adin ezberdinetako emakumeen topaleku izatea lortu"

Lehenbiziko Jabetze Eskolek harrera ona izan duten arren, arduradunak dagoeneko hasi dira hurrengo urteko ikasturtea planifikatzen eta zein arlo bultza behar diren pentsatzen: "gehiago indartzea espero dugu, eta adin ezberdinetako emakumeen topaleku izatea lortu nahi da. Bestalde, irailetik abendura antolatuko ditugun ikastaroen artean hauek daude: Gure amandreegandik ikasiz, Antzerki tailerra, Gitarra tailerra eta Emakumeak euskal kulturaren eta gizartearen tailerra", azaldu dute.

Ekainean egingo diren ekintza desberdinei dagokienez, alde batetik, Sexuen hezkuntza integralaren egitasmoaren baitan, hilaren 18an bertso saioa izango da gaztetxean 22:30etik aurrera eta 21ean eta 22an *Emakumeak eta umorea, barre-terapia* saioak eskainiko dira 19:30ean Sindikatu Zaharrean.

Azkenik, gay eta lesbianen nazioarteko eguna ekainaren 28an ospatzen dela-eta, ALDARTE Ikerketa eta Dokumentazioa Zentroak osatu duen *BIDEAN: ezkutukotik ikusgaitasunera* erakusketa ikusteko aukera izango da hilaren 25etik 28ra bitartean Betharram aretoan. "Bertan Lesbiana Feministen Kolektiboek eta Mugimendu Feministak 1997az geroztik burutu duten lan politiko eta soziala ikusteko aukera izango dugu, kartel, aldizkari eta dokumentu ezberdinen bitartez", azaldu dute Parekidetasun sailetik.

Etxez-etxeko laguntza jasotzen dutenei medikamentuen erabilera hobetzeko programa martxan da

Azpeitian gaur egun 105 dira Gizarte Zerbitzuetako laguntza jasotzen duten familiak



Programa martxan jarriko duten arduradunak.

Udalak eta Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarreak hitzarmena sinatu dute Azpeitiko herrian etxez-etxeko laguntza jasotzen duten pertsonen, bai autonomoak eta bai mendekoak, medikazioaren erabilera hobetuko duen programa martxan jartzeko.



Programa honen bidez hiritar kolektibo horri medikamentuak eskuratzen lagundu nahi zaio, eta erostearekin, kontserbatzarekin edo

administratzaerekin lotutako aspektuei dagokienez, tratamendua era egokian egin eta etxez-etxeko laguntzailearekin edo zaindariarekin lankidetzan aritzea bilatzen da.

Modu honetan, Azpeitiko herria proiektua abian duten Donostia, Ataun, Irun, Ordizia, Legazpi, Beasain edota Tolosa udalerriei batzen zaie.

Prozedura

“Dosifikatzeko sistema pertsonalizatuak” izeneko erreminta erabiltzen du programak eta bertan, pazienteak eguneko momentu bakoitzean hartu behar dituen konprimatuen azalpenak ematen dira, dosiaren administrazio egokiari buruzko informazioarekin batera. Izan ere, “ospitalera eramaten dituzten 10 lagunetik 7, sendagaiak gaizki hartzeagatik ingresatzen dituzte”,

azaldu du Gipuzkoako Botikeren Elkarteko zuzendari Patxi Etxebestek.

Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuek 105 familiari eskaintzen die gaur egun etxez-etxeko laguntza eta bertan parte-hartzea guztiz boluntarioa izango da. Erabiltzaileek baimen dokumentua sinatuko du eta bakoitzari elkarrizketa bat egingo zaio dituen gaixotasun eta hartzen dituen medikamentu guztien informazioa pilatzeko. Fitxa hau aldatzen joango da tratamendua eragiten dituen kanbioen arabera eta farmazialariak, hamabostero, medikazioa preparatu eta erabiltzaileari emango dio dosifikagailu pertsonalizatuetan.

Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Ana Mendizabalek adierazi duenez, “hasiera batean etxez-etxeko laguntza jasotzen dutenei zuzendutako programa da, baina bigarren fase batetan jende gehiagori zabalduko diogu”.

San Agustin kulturgunea lehenbailehen inauguratzeko aleginetan ari da Udala

Espainiako Etxebizitza Ministerioak azken lanak egiteko dirua ematea onartzean dago



azpeitiko Udala ahaleginetan ari da San Agustín kulturgunea San Inazio festetako inauguratzeko. Eraikinaren eraberritze lan guztiak amaituta daude dagoeneko baina barrua ekipatzeko beharrezkoa den proiektua (sonorizazioa, argiztapena eta multimedia materiala) onartzea falta zen eta azken egunotan Espainiako Etxebizitza Ministerioak dirua libratzeko azken dokumentua berehala sinatuko duela jakinarazi du. Honela, 300.000 euroak kulturgunea amaitzeko bideratuko dira eta lan hauek bi hilabeteko iraupena izango dute.



Kultur Mahaiko kideak.

Kronologia

Udalak 1998ko abenduan hartu zuen San Agustín elizaren eraberritze lanak hasteko erabakia. Lehen faseko obra hauetan barruko eraberritze lan batzuk eta udaletxeko goiko pisua atera ziren eta 2000. urteko udaran amaitu ziren. Urteetan geldirik egon ondoren, 2006an Udalak eta Espainiako Gobernuak protokoloa sinatu zuten San Agustineko II. faseko lanak aurrera egiteko eta erabilera kulturaleko ekipamendu osoa egiteko.

2007ko udaran hasi ziren lanean eta 2008ko bukaeran amaitu ziren erakinen eraberritze lanak; baina proiektu honetan zegoen ekipamendua ez zen egokitzen jo eta ekipamendu hori hobetzeko beste proiektu bat luzatu zen Madrilerara. Proiektu berri hau 2009ko azaroan onartu zuten; urte eta erdi igaro ondoren, oraindik San Agustín guneko ekipamendua amaitzeko behar den dirua jaso gabe dago.

Kulturgunearen irekiera izaten ari den atzerapenarekin kezkatuta, Kultur Mahaiko Talde Eragileak gutuna bidali zion orain hilabete batzuk Espainiako Kongresuko Gipuzkoako diputatuei eta bi erantzun jaso zituen.

Batetik, Jose Ramon Beloki EAko parlamentariak Kultur Mahaia adierazi zionez, gaiaren jakinaren gainean zegoen, Azpeitiko alkatearekin egon zelako, eta jakinarazi du Beatriz Corredor Etxebizitza ministroarekin hartu-emana izan zuela. "Begarituko duela esan zidan ministroak, eta espero dut kontua azkartuko dela", zioen Belokik. Bestalde, Arritxu Marañon PSE-EEko parlamentariak ere erantzun zion Kultur Mahaia, gutuna irakurri zuela eta Etxebizitza Ministerioarekin harremanetan jarriko zela esanez.

Ea, Udalak eta Kultur Mahaia egindako kudeaketek erantzuna izaten duten eta azpeitiarrek San Agustín kulturgune berriaz laster goatzeko aukera duten.

Udalak ia 20.000.000 euroko aurrekontua onartu du

Talde politiko guztiek aho batez onetsi dituzte urte honetarako kontuak



hiru hilabete luzez hitz egiten ibili ondoren, Azpeitiko Udalak 2010 urterako aurrekontuak aho batez onartu zituen joan den ekainaren 3an ospatutako udalbatzan. Honela, ia 20.000.000 euro kudeatuko ditu urte amaiera arte; 19.997.826 euro hain zuzen ere.

“2009ko hasierako aurrekontuarekin

“Krisi egoera dela-eta, saiakera berezia egin dugu gastuak kontrolatzen”

alderatzen badugu, aurtengoa %8,36 igotzen da, baina iazko amaierakoarekin alderatuz gero, jaitsiera %3,26koa da. Izan ere, doikuntza gogorra iazko urtean eman genuen. 2009ko aurrekontuak %9,36ko jaitsiera izan zuen 2008ko hasierako aurrekontuarekin alderatuta, eta bukaerakoekin alderatuta, berriz, %18,76”, adierazi du Julian Eizmendi alkateak.

Aurten izango diren ia 20 milioiak sail desberdinetan banatzerako orduan Langileria eta antolakuntza (5.725.201 euro), Zerbitzu orokorrak eta Baserriak (4.197.552), Hirigintza eta Ingurumena (3.951.300), Ogasuna eta kontuak

(1.536.954) eta Gizarte Zerbitzuak (1.013.265) izango dira partida handienak izango dituzten departamenduak.

“2010erako aurreikusitakoan aurrezkiarekin eta diru-laguntzekin inbertsioetan gora egiten da”

Eizmendik azaldu duenez, krisi egoera dela-eta, saiakera berezia egin dute gastuak kontrolatzen, “aurrezki garbia mantentzeko eta inbertsioak egiten jarraitzeko. 2010erako aurreikusitakoan, aurrezkiarekin eta diru-laguntzekin inbertsioetan gora egiten da. Gainera, mailegu berririk eskatzea ez da aurreikusten. Gizarte Zerbitzuak alorrean, adibidez, ia gastu guztiak mantendu edo igo egiten dira, gaur egun bizi dugun koiunturan duen garrantziarekin”, gaineratu du alkateak.

“Gizarte Zerbitzuetan ia gastu guztiak mantendu edo igo egiten dira, horrek duen garrantziarekin gaur egun”

Bestalde, Udal baltzu desberdinei dagokienez, Euskara Patronatuaren aurrekontua 646.746 eurotako izango da, Kirol Patronatuarena 990.921 eurotako eta Azpeitia Lantzenena, 6.566.056 eurokoa. Horrela, Euskara Patronatuan %7,86ko jaitsiera izan dute eta Kirol Patronatuan aldiz, %1,68ko igoera, “mantentze lanek eta prezioen igoerek eskatuta. Azpeitia Lantzeneko aurrekontua zaila da beste urteekin alderatzea, urte batean saltzea tokatzen baitzaio eta hurrengo urtean lursailak erostea egokitu baitzaio”, agertu du Eizmendik. Bi patronatuak eta Azpeitian Lantzen kontutan hartuta, Azpeitiko 2010eko aurrekontu orokorra 27.320.682 eurokoa da.

Bi liberatu izango dira

Ekainaren 3an egindako udalbatzan bi liberatu egotea onartu zen, Julian Eizmendi alkatea eta Zerbitzu orokorretako eta Iñaki Etxezarreta. Alkatearen urteko ordainsari gordina 65.873 eurokoa izango da, hilean 3.235 euro, eta Etxezarretak, berriz, 38.762 euro irabaziko ditu urtean eta hilean, 2.093 euro.

“Ordainsariak ezartzeko jarraitu dugun irizpidea aurreko lanpostuan irabazten zuen soldata mantentzea izan da. Eudelen Azpeitia bezalako herri batentzat ipinita duen parametroaren azpitik kokatzen da alkatearen ordainsaria, izan ere, Eudel-en datuen arabera 70.248 euro dagokio Azpeitiko alkateari”, gehitu du Eizmendik.

a zpeitiko Udalak 2010rako onartu duen aurrekontua ia 20.000.000 eurotara iristen da eta diru kopuru hori barneko hamabi sail desberdinen artean banatu behar da.

Bestalde, Euskara eta Kirol Patronatuek eta Azpeitia Lantzen baltzuak euren aurrekontu propioa izaten dute. Euskara sailean 646.746 euro izango dituzte, igerileku eta kiroldegian 990.921 euro

eta Azpeitia Lantzenen, berriz, 6.566.056 euro.

Ondorengo taulan udal ordezkariak adostu dituzten kontuen datuak agertzen dira zehatz-mehatz.

AURREKONTUEN TAULA

AZPEITIKO UDALEKO 2010EKO AURREKONTUAK

1. AURREKONTU OROKORRA ETA ENTITATE BAKOITZARENA

AURREKONTU OROKORRA	27.330.682,61
UDALA (aurrekontu propioa)	19.997.826,61
EUSKARA PATRONATUA	646.746,49
UDAL KIROL PATRONATUA	990.921,42
AZPEITIA LANTZEN, S.A.	6.566.056,00

2. UDALEKO GASTUEN AURREKONTUA DEPARTAMENTUKA

Ogasuna eta Kontuak	1.536.954,01
Hirigintza eta ingurumena	3.951.300,61
Hezkuntza eta Gazteria	707.594,98
Kultura eta euskara	965.696,49
Kirolak	732.621,42
Gizartekintza	1.013.264,00
Langileria eta antolakuntza	5.725.201,59
Festak	581.360,00
Zerbitzu orokorrak eta baserriak	4.197.552,00
Alkatetza	306.000,00
Industria, merkataritza eta turismoa	172.781,51
Parekidetasuna	107.500,00
GUZTIRA	19.997.826,61

3. 2009KO AURREKONTUAREKIN ALDERATUZ

		2009ko bukaerarekin konparaketa
UDALA (aurrekontu propioa)	19.997.826,61	-3,26%
EUSKARA PATRONATUA	646.746,49	-7,86%
UDAL KIROL PATRONATUA	990.921,42	1,68%

Inbertsioetara bideratuko dira 9.338.110 euro

Aurreikuspenak hiru ataletan sailkatuko dituzte udal ordezkariak



1 Aurtengo aurrekontuetan sartutakoa: 4.212.000 euro

gizarteak orokorrean bizi duen arrear, inbertsioek zati garrantzitsu bat Aurtengo kontuetan sartu diren krisi ekonomikoak Udalaren izango dute, ia 20 milioietatik 4.212.000 inportanteenak honako hauek izango aurrekontuak baldintzatu dituen euro inbertsioetara bideratuko baitira. dira:

Sanjuandegin urbanizazio lanak jarraitu	175.000,00
Bidegorria	300.000,00
Beste urbanizazio batzuk (Azillerri, Soreasu...)	345.000,00
Obrak udal eraikuntzetan	200.000,00
Oktogonoko igogailua	80.000,00
Soreasu	1.350.000,00
Liburutegia	156.545,00
Musika Eskola	97.455,61
Obra eta zerbitzuetarako ibilgailuak	110.000,00
Baserri bideak	190.000,00

2 2009tik txertatutakoa eta Estatu Fondoak: 3.595.110 euro

betalde, 2009 urteko izango dira eta Enplegurako eta herri aurrekontuetatik txertatutako iraunkortasunerako Estatu Fondoak dira, besteak beste, Done Jakue eta Jose de Artetxe kaleetako eta estali gabeko inbertsioak 2.064.634 euro 1.530.476ko kopurua du. Hemen sartuko igerilekuko egokitze lanak.

3 Gerakinarekin eta diru-laguntzekin finantzatuko diren adostutakoak: 1.531.000 euro

b estalde, gobernu taldeak eta gainontzeko taldeek adostu dutenez, Udalaren soberakinekin eta jasoko diren diru-laguntzekin beste proiektu batzuk finantzatuko dituzte. Lan hauek burutzeko aurrekontua 1.531.000 eurokoa da eta dagoeneko, udalbatzak Enparan-gain eta Xanaduko urbanizazio lanak egitea onartu du:

Betharram	250.000,00
Liburutegia	118.000,00
Nuarbeko frontoia	175.000,00
Ur hornidura sarea	100.000,00
Berdelariko frontoia	156.000,00
Lokala erostea	300.000,00
Enparan-gain	191.000,00
Xanadu	241.000,00

a zkenik, aparteko diru-laguntzarik iritsiko balitz, udal ordezkariak hiru proiektu egitea aztertzeko konprometitu dira. Hauek, Done Jakue kalearen hiritartzea, igerilekuaren handitzea eta Goenan kamioi eta karabanentzat aparkalekuak egitea izango lirateke eta guztira, 1.850.000 euro beharko lirateke.

TAO sistema berria iristear da

Soreasuko aparkalekuak uztailearen 1ean zabaldu nahi dira eta horrek aldaketa ekarriko du



Soreasu kulturune azpian kokatzen diren aparkalekuak uztailearen 1ean zabaldu nahi ditu Udalak eta horrek, plazan eta azoka plaza atzean dagoen TAO sistemaren aldaketa ekarriko duela iragarri dute arduradunek. Hori dela-eta, Azpeitiko Udalak jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziengatik ordaindu beharreko tasen

ordenantza arautzailean, autoentzat gordetako eremuetako tarifa eta epe muga aldatzea erabaki zuen azken udalbatzan.

Horrela, uztailetik aurrera enparantzako eta azoka plaza atzeko TAO guneetan aparkatzea garestiagoa izango da. Autoa ordubete izatea 0,50 euro kostako da eta 90 minutuz izan nahi duenak, berriz, 0,75 euro ordaindu beharko ditu. Erabaki honen helburu nagusia plazan mugikortasuna egotea nahi dutelako da: “enparantzako aparkalekuetan mugikortasuna ahalik eta handiena izatea nahi da eta horregatik, ordu eta erdi baino gehiago ezin izango da autoa plazan aparkatuta eduki, autoa denbora gehiagoan aparkatuta eduki nahi duenak Soreasura joan beharko du”, azaldu du Julian Eizmendi alkateak.

Soreasuko lur azpiko aparkalekuetan lehen ordu eta erdia autoa aparkatzea

dohain izango da eta hortik aurrera, berriz, minutuko 0,008333 euro ordaindu beharko dira. Egun guztian zehar izanez gero, gehienez 10 euro abonatu beharko dira.

Bestalde, hilabeteko edota urteko bonoak atera daitezke eta hauen prezioak 50 euro eta 500 euro izango dira, hurrenez hurren.

37 aparkaleku salduta

Kulturune berriaren azpian bi solairuko aparkalekua egin da. Lehen solairuan txandakako aparkalekua izango da eta 129 auto hartzeko lekua du. Bigarren solairuan, aldiz, 109 aparkaleku eta trastelekuak daude, baina Udalak hauek saldu nahi ditu: “Dagoeneko 37 aparkaleku eta 22 trasteleku saldu ditugu eta gainontzekoak saltzeko, irailean deialdia zabalduko da berriro”, iragarri du Eizmendik.

Plan Orokorrak ez du blokeorik



Herriko antolamendu urbanistikoaz dauden aukera desberdinak zehazten ari dira

azpeitiko Plan Orokor Urbanistikoan blokeorik ez dagoela eta aurrerapausoak ematen ari direla adierazi du Julian Eizmendi alkateak. Iazko uztailaren 23an Udaltzarak erabaki zuen Azpeitiko Plan General Urbanistiko berria egitea; hurrengo egunetan eman ziren tramitazioko aurreneko urratsak, eta irailean, oportunitate bultan, hasi ziren Plan Orokorra egiteko Talde Teknikoaren hautaketarekin. "Hautaketa egin ondoren, bi astetik behin egiten ditugu planeamenduko bilerak eta ipinitako urratsak betetzen ari gara, Talde Teknikoak Hirigintza Batzordean aurkeztu eta onartutako egutegiaren arabera. Orain, "abantzea" fasea prestatzen ari gara, herriaren antolamendu urbanistikoaz dauden ikuspegiak eta aukerak zehazten", azaldu du. Talde Teknikoak apirilaren 27an aurkeztu zituen proposamen batzuk Hirigintza Batzordean; eta Abantzeko alternatibek zehaztapen hori maiztzean zehar egin zen Hirigintza Batzordean. Aukera desberdinen proposamenak zehaztutakoan, Udaltzarako Aholku Batzordera pasako dira bere iritzia eman dezaten. Modu berean, ekainean espero da alternatiba zehatz horiek jendaurrean jartzea 2 hilabetez, herritarrek ere beren iritzia eman dezaten. Ondoren, eta iritzi desberdinak aztertuta erabakiko da zein alternatiba jarraitu, eta segidan Udaltzarak Plan Orokorrari hasierako onarpena emango dio; berriro ere jendaurrean epea irekiz.


Zarautzetik autobus zerbitzu berria

ZARAUTZ	AIZARNAZ	ZESTOA	AZPEITIA	AZKOITIA
7:15	7:35	7:40	7:50	8:00
9:00	9:20	9:25	9:35	9:45
11:15	11:35	11:40	11:50	12:00
14:00	14:20	14:25	14:35	14:45
15:45	16:05	16:10	16:20	16:30
18:45	19:05	19:10	19:20	19:30
20,15	20,35	20,40	20,50	21,00

Ekainaren 28tik irailaren 10ra aukera bat gehiago izango da itzultzeko

herritarrek Zarautzera joan-etorria egiteko aukera gehiago izango dituzte uda honetan. Izan ere, Udaltzarako kudeaketaren ondorioz, ekainaren 28an hasi eta irailaren 10era bitartean kostako herritik itzultzeko zerbitzu bat gehituko zaio gaur egungo ordutegiari. Honela, orain arte lanegunetan Zarautzetik irteten zen azken autobusaren ordutegia 18:45ak zen baina uda honetan La Guipuzcoanaren azken zerbitzua 20:15ean aterako dela aurreratu dute arduradunek. Bestalde, beste berrikuntza nagusia asteburuetan Zarautzera joateko eskaintzen diren bi zerbitzu bereziak egun gehiagotan izango direla da. 9:45ean eta 11:15ean ateratzen diren autobusak, uztaila eta abuztu osoan ez ezik, ekainaren 26an eta 27an eta irailaren 4an eta 5ean ere hartzeko aukera izango da. Ordutegi berria laster izango da ikusgai geltokietan ipinitako TFT informazio pantailetan.

Joxe Takolo beka eman dute



Sariko 4.200 euroak Patagonian eskalatzeko bideratuko dute irabazleek

Goi-mendizaletasuna bultzatzeko helburu nagusia duen Joxe Takolo beka eman dute eta aurtengo 4.200 euroko saria, Mikel Ajuriak, Gorka Barandiaranek eta Arkaitz Yurritak aurkeztutako *Patagonia Espedizioa-Fitz Roy, Flush bidea eskalatzu* proiektuari bideratu da. "Hamar urte dira dagoeneko Joxe Takolo bekarekin hasi ginela eta proiektu ugari saritu dira, nahiz eta, azken aldiko egoera ekonomikoa ez egon alde, saria mantenduz doa", adierazi zuen Kirol batzordeburu den Julian Kortajarenak. Aurkeztutako bi egitasmoen artean onena izan da Flush bidea eskalatzeko proiektua. Irabazleek bideo bidez aurkeztu zuten euren proiektua; Fitz-Royko Flush bideak 1.350 metroko luzera du eta 7c A2 mailako zailtasuna. "Guretzako laguntza handia da sari hau. Azaro bukaeran edo abendu hasieran joango gara Patagoniara eta ea dena ondo joaten den, bertan 2 hilabete inguru egoteko intentzioa dugu", esan zuten mendizaleek maiatzaren 8an egindako sari banaketa ekitaldian. Euskal Mendi Federazioko ordezkari den Alberto Zerainen esanetan, saritutako proiektua "oso erakargarria" da eta krisiak krisi, mendian aurrera jarraitu behar dela aipatu zuen; "irrikan egongo gara izandako bizipenak ezagutzeko. Animo!".

Hazparnerekiko harremana sendotuz



Lapurdiko herriko biztanleak Azpeitian izan ziren maiatzean

1 986 urtean senidetu ziren Azpeitia eta Hazparne eta 24 urte beranduago, harremana sendotzen doa. Honen adierazle, Lapurdiko herriko biztanleek maiatzean Azpeitira eginiko bisita izan zen. Maiatzaren 15ean 30 lagun inguru etorri ziren eta hemengo eragileekin taldeetan banatu ondoren, herriko kultur, kirol eta hezkuntzako instalakuntza desberdinak ikusteko aukera izan zituzten. Herritarrak eta udal ordezkariak bazkaltzera joan ziren eta egun bereziaren oroigarri bezala, Julian Eizmendi alkateak Mikel San Juanek egindako egurrezko kaxa bat eman zion Hazparneko alkate-orde den Patxi Arozarenari. "Egun ederra izan zen eta hazpandarrak oso gustura ibili ziren", adierazi dute arduradunek. Maiatzaren 14ean Hazparneko baserritar talde bat izan zen Azpeitian ostiral arratsaldetan egiten den azoka parte hartu eta euren produktuak saldu eta nola egiten dituzten azaltzeko. Balorazio ona egin da eta hemengo baserritarrak Lapurdira joateko asmoa agertu dute. Ekaineko azken asteburuan, berriz, Hazparneko haurrak etorriko dira anaiarteko futbol txapelketan eta judo erakustaldian parte hartzeko.

Gidabaimena euskaraz atera daiteke

Arduradunek sariak emango dizkiete euskaraz ateratzen duten lehenengo 10 ikasleei



Ikastetxeetako, autoeskoletako eta udaleko ordezkariak.

handia egin behar izan dute liburuak eta bestelako materiala egokitzeko”, adierazi du Ana Mendizabal Euskara saileko zinegotziak.

Gidabaimena ateratzeko saio teoriko eta praktikoak euskaraz izango dira horrela eskatzen dituztenentzat eta autoeskoletako ordezkariak gustura agertu dira ekimenarekin: “Helburu ona du. Beste herrietan harrera ona izaten ari da eta ea gero eta gehiago animatzen diren, izan ere, askok oraindik ez dakite aukera dagoenik ere. Hala ere, arazoa azterketa praktikoan dago, azterketak egiten dituztenetatik bik bakarrik baitakite euskaraz. Harrera ona izan eta jende gehiago apuntatzen joaten bada, eskaera luzatu beharko da Trafikora azterketak egiten dituztenek ere esfortzua egin dezaten”, esan du Lagunak autoeskolako kudeatzaile den Joxe Mari Fernandezek.

Jendea gidabaimena euskaraz ateratzera bultzatu eta kanpainaren amuanerortzeko helburuarekin, euskaraz ateratzen duten lehen hamar lagunek saria izango dutela aurreratu zuten arduradunek, hain zuzen ere, bi lagunentzako bazkari-afari bana eskuratuko dute.

azpeitiko Udalak, Iraurgi, Ikasberri eta Urola ikastetxeek eta Lagunak eta Urola autoeskoletak bat egin dute gidabaimena euskaraz ateratzeko eskaintza zabaltzeko. Kanpaina berria orain gutxi jarri dute abian eta arduradunek adierazi dutenez “fruitu handirik ez du eman”. Horregatik, ikastetxe guztietan kanpaina honen hedatze lana egingo dute euren Batxilergo mailako ikasleen artean, “gazteak baitira gidabaimena ateratzeko ikastaroak egiten dituzten gehienak”.

“Herriko ikastetxe guztiek Batxilergo mailako ikasleen artean hedatuko dute kanpaina berria”

Era berean, Lagunak eta Urola autoeskoletak emandako laguntza eskertu nahi izan dute arduradunek: “Biak hasieratik prestatu dira kanpaina aurrera eramateko. Gainera, praktikan jartzea beraiei egokitzen zaie eta lan eta esfortzu



Euskaltegitik igarotako ikasle eta irakasle guztiak bilduko dira

Urteurreneko ekitaldiekin amaituko duen bazkaria ekainaren 19an izango da

azpeitiko Udak Euskaltegiak 25. urteurrena bete du ikasturte honetan eta antolatutako ekitaldi sortarekin amaitzeko, euskaltegitik igarotako ikasle eta irakasle guztiak bilduko dira ekainaren 19an izango den bazkari batetan. Arduradunek adierazi dutenez, zita honen helburu nagusia mende laurden honetan euskaltegitik pasa diren pertsona guztien parte-hartzea bilatzea da, horregatik, bazkariara joan nahi dutenek izena eman besterik ez dute egin behar. Bazkaria ekainaren 19an izango da 14:00etatik aurrera Kiruri jatetxean.

Azpeitian euskararen eskaintza altua da

Soziolinguistika Klusterrak 544 erakunde, enpresa eta talde ikertu ditu

Ana Mendizabal zinegotzia eta Soziolinguistika Klusterreko Olatz Altuba.



Ana Mendizabal zinegotzia eta Soziolinguistika Klusterreko Olatz Altuba.

Soziolinguistika Klusterra enpresak Azpeitian euskararen eskaintza zenbatekoa den neurtu du Euskaini indizea erabiliz. Ikerketa egiteko herriko 544 erakunde, enpresa eta talderekin egon da, eta 0 eta 1 arteko eskalan, emaitza 0,70ekoa izan da.

Honela, Euskaini indizeak elkarre, enpresa eta taldeek herritarrekin komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza neurtu du, euskarazko eskaintzari buruz jasotako informazioa arabera sailkatuta. Era berean, elkarrekin, enpresek eta taldeek herritarrekin komunikatzeko erabiltzen duten errotulazio bidezko, ahozko eta idatzizko, hizkuntza neurtu ditu.

Azpeitiko kasuan eskaintza "altua" bada ere, Udaleko Euskara batzordeburu

den Ana Mendizabalek nabarmendu duenez, "azterketa berdina egin den beste herrietan ez bezala, Azpeitian euskarazko eskaintza, ezagutza eta erabilera datuen azpitik dago. Hau da, herritarren esku dagoena oso goian dago, baina Estatuko administrazioa, komunikabide gehienak eta publizitatea bezalako eragileek ez dute bat egiten herritarren hizkuntza errealitatearekin euren zerbitzuak eskaintzerakoan".

"Azpeitian euskarazko eskaintza, ezagutza eta erabilera datuen azpitik dago"

Datuak alderatu ahal izateko helburuarekin, Euskara Mahaia azterketa hau lau urtean behin egitea erabaki du.

Ekainaren 3an Udalbatza osoak egindako bilkuran hartu ziren erabakiak ondorengo hauek izan ziren:

- 1.- 2010eko maiatzaren 6an egindako bilkuraren akta onartzea.
- 2.- 2010 ekitaldirako aurrekontua onartzea.
- 3.- Udal agintarien liberazioak.
- 4.- 2010 ekitaldirako aurrekontuan 3. kreditu aldaketa.
- 5.- Azpeitiko zerga-agintarauak aldatzea: Soreasuko aparkalekua erabiltzeagatik prezio publikoak ezartzea eta herriko kaleetan horretarako erabakitako guneetan aparkatzeagatik ordaindu behar den tasa aldatzea.
- 6.- Etxebeltz-Izarran mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonentzat gordetako babes ofizialeko bi etxebizitza, beren garaje eta trastetegiekin, jabetzan eskuratzeko zozketarako baldintzak.
- 7.- Julian Elorza 4ko sustapenean 19. etxebizitza eta horren garaje eta trastelekuak araubide orokorreko Udal Etxebizitza Tasatuen izaera izateko behin behineko kalifikazioa.
- 8.- Udalbiltzaren auzibideaz salatzeako testua.
- 9.- Eskubide guztien alde, euskal presoak Euskal Herrira mozioa.

agendaekaina

EKAINA

1	2	3	4	5	6	
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				



14tik 20ra

KARTEL ERAKUSKETA
ANTZERKI TOPAKETA 2010
18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

14, astelehena

Parekidetasun Sailak antolatuturik:
Virginia Imazen eskutik emakumeak eta umorea,
barreterapia saioak
19:00etan
Lekua: Sindikatu Zaharra

15, asteartea

Parekidetasun Sailak antolatuturik:
Virginia Imazen eskutik emakumeak eta umorea,
barreterapia saioak
19:00etan
Lekua: Sindikatu Zaharra

18, ostirala

ASTEBURU MUSIKALA
Garikoitz Mendizabal eta Xabier Zabala, txistu
birtuosoa eta sentimenduak bat eginik. Betiko
eta betirako
20:00etan
Lekua: Enparan Dorretxea

URRESTILLAN SAN JUAN JAIK

Karmelo Etxegarai Ikastola jaialdia
Lekua: Polikiroldegia

Parekidetasun Sailak antolatuturik:
Sexualitateari buruzko bertso saioa
22:00etan
Lekua: Gaztetxea

19, larunbata URRESTILLAN SAN JUAN JAIK

GAZTETXEKO FUTBITO FINALA
16:00etan
Lekua: Plaza Nagusia

ASTEBURU MUSIKALA
LEGEN BELTZA eta HACRIDE (Frantzia) tal-
deen ROCK KONTZERTUA
22:30ean
Lekua: Udaletxeko arkupetan

20, igandea URRESTILLAKO SAN JUAN JAIK Jubilatuena eguna

Udaleko Gazteri Sailak antolatuturik
Haurrentzako ikuskizuna
12:00etan
Lekua: Udaletxeko arkupetan

23, asteazkena URRESTILLAN SAN JUAN JAIK San Juan bezpera

JUAN ANTXIETA MUSIKA ESKOLA
Urte amaierako jaialdia
20:00etan
Lekua: Izarraitz Pilotalekuan
SAN JUAN SUA
21:30ean
Lekua: Plaza Nagusia

24, osteguna
ASTEBURU MUSIKALA
Azpeitiko Musika Bandaren kontzertua
Meza ondoren
Lekua: Urrestillako plaza

URRESTILLAN SAN JUAN JAIK
San Juan eguna

SAN JUANAK OÑATZ AUZOAN

25, ostirala
URRESTILLAN SAN JUAN JAIK
San Juan txiki

26, larunbata
URRESTILLAN SAN JUAN JAIK
San Juan gazte

ASTEBURU MUSIKALA
ROCK KONTZERTUA
Udaletxeko Arkupetan
Ordua: 22:30

SAN JUANAK OÑATZ AUZOAN

IV. ANAIARTE FUTBOL-TXAPELKETA
Tokia: Belar artifizialeko zelaia

27, igandea SAN JUANAK OÑATZ AUZOAN

ASTEBURU MUSIKALA
ROCK KONTZERTUA
Lekua: Etxe Zuri aurrean
Ordua: 19:30

IV. ANAIARTE FUTBOL-TXAPELKETA
Tokia: Belar artifizialeko zelaia

28tik uztailearen 11ra
ARTE ETA DISEINO
Ikasleak urtean zehar egindako lanen erakus
Lekua: Betharram Aretoa
Astegunean: 18:00etatik 20:00etara
Asteburuan: 12:00etatik 14:00etara

28, astelehena
GAY ETA LESBIANEN NAZIOARTEKO
EGUNA
Erakusketa : Lesbianismoaren historia
Lekua: Betharram aretoa
Egunak: ekainak 25,26,27 eta 28

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Ekainaren 8, 17, 23 eta 30ean.

ARANBURU. Enparantza nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Ekainaren 1, 2, 3, 4, 5, 6, 11, 21, 26 eta 27an.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Ekainaren 7, 12, 13, 16, 22 eta 29an.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Ekainaren 9, 14, 19, 20 eta 24an.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Ekainaren 10, 15, 18, 25 eta 28an.

